

JEAN LOUIS DAVANT
EUSKALTZAINDIAN SARTZEAN

EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Maule – 1976-VIII-22

Supervielle Mauleko huzapez edo alkate jauna,
Jaun-andreak:

Maulen, Zuberoako hiriburu huntan, biltzen da egun Euskaltzaindia, Euskararen Akademia. Eta biltzen da, hain zuzen, Zuberoako seme baten, Jean Louis Davant jaunaren, Akademian sartzea ospatzeko.

Guztiok dakizuten bezala, euskara begiratzeko, aitzinatu eta sustatzeko jarria da Euskaltzaindia izeneko batasun hau. Akademia hunek beti izan ditu bere galtzarrean Zuberoako semeak, herrialde huntako mandatari eta berri emaile diren euskaltzain edo 'académiciens' direlakoak. Nola ez, hain nor-tasun handiko eskualdea izanik Zuberoa? Euskaldunon artean ez da ez dakienik Zuberoa euskara molde zahar eta bere gisako baten jabe dela; aparteko modu batean xarmant, aberats eta maitagarri dela bere herri literaturaz, koblakariez, kantore eta ohidura eta tradizio zaharrez. Arrazoi guzti hoiengatik euskaldun guztiontzat tira eta erakarpen handiko bazterra da Zuberoa.

1919. urtean sortu zen Euskaltzaindia, Euskararen Akademia. Eta sortzetik beretik han ikusten dugu Zuberoako seme bat, Aita Pierre Lhande jesuista. Zuberoari eta Euskal Herriari hainbeste ohore eman dion gizona. Hain zuzen, heldu den urtean izango da jaun hunen mendebetetzea, hura sortu zeneko ehungarren urtea, alegia.

Aita Lhande izan zen *Euskera* Euskaltzaindiko aldizkariaren lehen Zuzendari. Uste dut orduan Aita Lhande irakasle zela Frantziako Tolosan, hango Unibertsitatean. Eta *Euskera* aldizkari hori berak gobernatzen eta Toulouseko inprimeria batean inprima arazten zuen. Behintzat, lehen zenbaki hoik inprimeriaren marka daukate orri azpian, eta hunela dio delako marka horrek: Toulouse, Imprimerie et Librairie, Edouard Privat, rue des Arts, 14.

Aita Lhande gero Parise aldean bizi zen eta han lan gaitzak egin zituen giza bihotzak Kristoren federako irabazi nahiz.

Aita Lhande hil zenean, Guillaume Eppherre jauna izendatzen du Euskaltzaindiak, Zuberoaren mandatari izan dadin. Eppherre jauna Altzurukun sortua zen. Berak gobernatu du anitz urtez *Gure Herria* izeneko aldizkaria. Damurikn duela bi urte hil zitzaigun Eppherre jauna ere.

Berriz ere Zuberoaren aulkia hutsik gelditu zen Euskaltzaindian. Eta oraikoan, huts hori betetzeko, Euskaltzaindiak Jean Louis Davant jauna, Urrustoiko semea, izendatzen du. Eta jaun hunek egun egiten du bere sartze ospetsua gure batasunean.

Bere sarrera hitzaldia egingo digu, bada, Davant jaunak. Usaia eta ohidura den bezala, 'académicien' berriak 'académicien' zahar bat hartu ohi du egun huntan bere eguzaita izan dadin. Davant jaunak Pierre Larzabal hartu du ofizio horretarako. Beraz, Davant jaunaren hitzaldia bururatu eta, Larzabalek ihardespenezkoa egingen du.

Beraz, Davant adiskidea, hirugarrena zara zu Zuberoaren aulkia gure Akademian eduki dutenen artean. Lhande eta Eppherre jaunen ondokoa. Aulki hori esku onetan dela bada-kit.

Baina Euskaltzaindian ez daude xoilki euskaltzain osoak ('académiciens titulaires'). Euskaltzain ohorezkoak ere badira han. Eta hauen artean badugu bat, Zuberoako alaba dena: Mlle. Madeleine de Jaureguiberry. Eta han dira euskaltzain laguntzaileak ere ('correspondants'). Hauen artean badira, noski, Zuberoakoak, Zuberoaren mandatari eta berriketari direnak. Batzuk hilak dira, noski, beste batzuk gure artean ditugu: J. Bte. Constantin, Atarratzekoa; Felix Larrieu, Maulekoa; Justin de Menditte, Mendikotakoa; J. Urruztoy,

Barkoxekoa; Pierre Bordazarre, Atarratzekoa; Marcelin Heguiaphal, Maulekoa; Roger Idiart, Atarratzekoa; Jean Mirande; Dominique Peillen; J. Larrasquet; Gregoire Epphere —Guillaumeren anaia—, eta abar. Ez dut kontu osoa eman nahi izen bat baino gehiago ahantziko zaidan beldurrez.

Eta lehenago ere, Euskaltzaindiarik ez zenean ere, guztiok dakigu nolako gizon handiak eman zizkion Zuberoak euskarari: Oihenart, Tartas, Zalgize, Maister, Etxahun, Archu, Intxauspe, Barreix, Chaho, Abbadie, Sallaberry, etab. Gabel eta Lafon bera ere, nahiz eta hemengoak ez izan, guztiok dakigu zein atxikiak ziren hemengo euskarari.

Gure aulkietan, herioak kausaturik, hutsak gertatzen diren arauka euskaltzain berriak izendatzen dira, huts hoik betetzeko. Hala Louis Dassance jauna ere berriki joana zaigu, eta haren lekuan Jean Hiriart Urruty apez jaun hazpandarra izendatua izan da. Baina jaun hunen sartzea beste egun batean ospatuko dugu.

Eni berriz, egungo ospaketa hunen hastean, eskerrak ematea beste lanik ez zait gelditzen. Anitz esker bihotz-bihotzez orori: Mauleko jaun merari, Mauleko herriari, hainbeste zoko eta tokitarik etorritako jaun eta anderei, eta egungo besta eder hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi.

Eta zorionak bereziki zuri, egun Euskaltzaindian sartzea egiten duzun Davant jaun horri. Iraunkor eta balios izan dadila euskararen onetan hartzen duzun kargu eta zerbitzu hau, ezen zerbitzua da batez ere. Balios eta ondoriotsua izan dadila, bada, zerbitzu hori Zuberoa, Euskal Herri eta euskararentzat! Halabiz.

**JEAN LOUIS DAVANT
EUSKALTZAINDIAN SARTZEKO MINTZALDIA**

Maule — 1976-VIII-22

J. L. Davant

Andereak eta jaunak,

Mintzaldi hau ez nūke hasi nahi, EPPHERRE anai apezak aipatū gabe. Altzūrūkūtar familia batetako seme, biak izan dira eūskalzale argiak eta sūharrak. Biek lan hanitx egin die eūskaraz eta eūkararen alde.

Gehiena, Guillaume, Eūskalzain osoa zen: ene aitzinekoa, ohore handia baita enetako horren ondoko izatea. Elizkizūnetan erauntsi dū haboroenik, eta litūrgia xiberotarrez ezari daikū, behar ere, bestela frantses hūtsiala kondenatūrik baratzen bai ginen, sail hortan ere.

Gazteagoa, Grégoire, Eūskalzain lagūntzalea, Xiberoko berri emaile arrahaiña zen "Herria" kazetan, eta Mauleko ikastolaren zūrkaitx haitietarik.

Biak diala bi urte joan zaizkū, betiereko bortiala, zōnbait egun arte, hanitxez goizegi...

* * *

Goizegi zait ere, horien obraren behar bezala ikertzeko; merexi lūkian zūhūrziarekin begistatzeko, hain bat hūrrūntik egin behar bailizate.

Arren, igaran gizaldi edo menteari бүрүз үнгүрätүкo gira, beste bi xiberotar eүskalzaleen gana: horik dira Antoni **ABADIA URRUSTOIKO** (erdaraz Antoine d'Abbadie d'Arrast) eta Agosti **XAHO** Atarraztarra: lehena, ene herritarra; bigarrena, ene amaren kartielekoa, zeren ama sortzez, Altzaiko düt.

Biak oso diferentak ziren, desbardin eta despare. Baina biek algarrekin lan egin die, eүskararen eta Eүskaldünen alde.

Denbora gütiz ikusi behar dügү, xehetarzünetan sartü gabe, nor diren Abadia eta Xaho, algarrekin zer lan egin dien, nolakoa den horien eүskaldüngoä, eta oraiko eүskaldüngoari zer ekarten dien batak eta besteak.



I

NOR ZEN ABADIA

Mila zortzi ehün eta hamarrian sortü zen, Irlandako Dublin hirian. Ama, irlandesa zian: andere **THOMPSON** bat; aita aldiz, Mixel edo Arño - Mixel, Xiberoko jaun ttipi bat, Xiberoan ez baitzen jaun handirik. Ezi, artzaingotik bizi zen

gure kartiela. Herriarenak ziren lür hanitx, eta ondorioz, jabe gotorrik ez zen.

Halere, Frantziako errebolüzione (edo irailtza) denboran, Irlandala ihes egin zian Mixel Abadiak. Han ezkontü zen andere Thompson batekin, eta sei haur üken zütien: hiru alaba eta hiru seme. Gehiena, Antoni zen.

Laster Frantziako Tolosan kokatü zen familia (1820). Bakantzak Audaux-eko jauregian igaraiten zütian, Biarnoko mügan, Urrüstoitik hamar kilometretan.

Ikasle izigarri argia izan zen Antoni, bai mintzaje edo hizkuntzetan, bai zientzia edo jakintzetan. Sorbonan, Arago famatiaren ikasle da. Bere anaie Arnörekin, Etiopiala joaiteko prestatzen da gisa oroz: bai ezpiritüz, bai korpitez. Nil (ibai edo) ühaitz handiaren ütürri-sorgiak atzaman nahi dütie. Ez dira haietara seküla heltüko; baina, arte hortan, beste zerbait kausitüren die, eta ez güti. Jakitatez eta bestela ere, zinez aberastüko dira berak eta Eüskal-Herria. Lehenik, Antoni Bresiliala igorten dü Aragok. Han astronomiazko eta geografiazko berrogei-ta-hamar ikertze egiten dütü, mañetismaren gora-beherak ekiaren arabera estüdiatzen dütiala.

Hogei-ta-sei urtetan, Agosti XAHO-ren ezagütziak egiten dütü Antoni Abadia-k. Adixkidantzatan sartzen dira, eta algarrekin agertzen dütie aipatüko dütügün bi obrak.

Ondoko urtean, Etiopiala badoa Antoni. Han atzamaiten dü Arnö anaia, hura aitzinean joanik baitzen, bidearen egiteko bezala.

Manatzeko eginik da Arnö. Etiopiako politikan sartzen da erdiz-erdi, gerlan ere ari da. Aitzindari egiten die hanko бүрү-zagiek. Gүdүka handi bat irabazten dü eta, horren ohoretan, "Ras Mikael" deitüko die: erran nahi baita "Mixel printzea" (ezi, aita bezala, Arnö - Mixel deitzen da.).

Oso bestelakoa da Antoni. Borroka ez dü maite. Jentea xüxenka bortxatü baino, üngürüz bildu nahiago dü, bere xedetara heltzeko behar den denbora hartüz. Bestalde, ez da hanbat politikaria. Jakintzari baizik ez dü eskerrik: geografari, astronomiari eta leküko mintzajer lotzen da errotik. Sail horietan, oso jakintsü eta famatürrik jeltkiko da, eta librü hanitx izkiribatüren dü.

Zer nahi gisaz, algar osotzen eta lagüntzen die bi anaiek. Bere ikertzetan, Arnöz eijerki baliatzen da Antoni jakintsüna.

Biak Etiopiako negus edo errege den Menelik handiaren adixkide dira. Bakoitxak bere gisan lagüntzen die, Etiopiaren batarzunari bürüz, bai eta Angles eta Italianoek aztaparretarik begiratzeko.

Horri esker, hontarzun ederrak Etiopiatik ekarten dütie: Antoni-ri ja, ederki baliatüko zaitzo, jakintzaren eta eüskal-düngoaren honetan.

* * *

Hameka urtez Etioptian erauntsirik, kartieliala ützülden dira bi anaiak (1848). Heben kokatzen zaizkü: Arño, Ziburuko Elorriagan; Antoni, Hendaiako Aragorrian (1849an erosi zian); eta hirugerrena, Xarles, Baigorriko Etxauz jauregian.

Aragorrian, etxalte handi baten erdian (340 ha), Abadiako jauregia altxatzen du Antonik (1862-1870). Arxitekta, Viollet-le-Duc famatia dü.

Artean, pe horietako andere batekin ezkontüko da (1859); baina haurrik gabe hilen da, lauetan-hogei-ta-zazpi urtetan (1897). Jauregiko txapelan ehortzirik da, altare pean, bere emaztearekin (+1901). Honen gatik, oso behezi zen hain arraro zian Arño anaiaren ganik. Haren ehortzetan ixilka zen izan, gordaxka.

Abadiako leihoetarik, zelüko izarren ikertzen ari zen, alimaleko larga-bista eli batekin. Lan horren jarraitzeko, Institut delakoari ützi zian jauregia, üngürüko etxaltearekin.

Hamalau mintzaje bazazkian: hamalau hizkuntza horietan izkiribatürrik, errantzahar eli bat ützi zütian, jauregiaren barneko parete ta arterrietan ederki marrazkitürrik: lehen-lehenik eüskarazkoak, prefosta.

Zientzia edo Jakintzen Akademian, lagüntzale bezala haiatü zien; laster Akademikide oso egin zien; eta azkenean, Akademia hortako president edo lehendakari ezari zien.

Akademian ez zien nahi zonbaitek, ezi kiristi süharra zen, oso gaizki ikusirik baitzen gaiza hori, denbora haietan ere. Arran, gorritü behar izan zian Arago handiak. Jakintsü lagüner erran zaien, bixi-bixia: Jaunak, gure haitiaren egiteko, ez dizügü Abadiaren barneko sentimentü eta sinister kasü egin

behar, baina kanpoko laner bera so egin. Bestelan ere, dohat-sü holako sinestea diana. Nik ja, beste hainbeste nahi nikezü!

* * *

Geografiaz eta astronomiaz bezain beste, euskaldüngoaz axolatü zen. Euskararen amorioa, aitaren ganik zian, segur ere, zeren oso euskalzalea zen Mixel A. bera.

Euskaraz izkiribatü zian Antonik, bereziki "Zubernoatika-ko gutun bat" (1864). Euskaratzaz eginik izan ziren azken lanen ikertze bat agertürik bazian aitzinetik (1859). Hortan Lucien Bonaparte printzearen euskal lanak laidatzen dütü, eta Inchauspe apezaren euskal aditza ("le verbe basque") oroz gaiñetik goraiatzan.

Baina izkiribüz baino haboro, aholküz eta diharüz zian eükara lagüntü. Lehenik pelotari lotü zen. Bera pelotakari eijerra zen eskü - hüska. Eskü jokiaren alde primak eman zütian, bai eta arrabot edo bota-luziaren alde. Xixtera plaza libroan ez zian hain begi honez ikusten. Har gatik hura ere lagüntü zian. Urruñako arrabotia bere sakolatik egin zian.

Gero Urruñan hasi zütian koblakarien zoin-haborokak (1853-an izan zen lehena), eta berrogei-ta-lau urtez bere sosez etxeki zütian. Mügaz haintian ere, koblakarien bestak eta euskaldün jaiak antolatzen zütian.

Euskaraz ontsa mintzatzen ziren haurrer primak emaiten zaitzen Abadiak.

Donibane-Lohitzüneko bestetan, (lauetan-hogei-ta-hamabietik) parte handia hartü zian, jai horietan euskaldün-goa azkarki sartzan ziala. Horra deitzen zütian koblakariak, pelotakariak, mügaz bestaldeko dantzariak, Xiberoko maskaradak eta pastoralak, **HEGUIAPHAL** bat errejent agertzen zela ordukoz...

Euskarazko libriak ere akülatzen eta saristatzen zütian thai gabe. Euskaldünek deitzen zien "Aita Abadia", arrotzek aldiz "Euskaldünen Aita", eta berak gogo honez oihü egiten zaien: "Zazpiak bat!".

* * *

Horiekin oroekin, Hendaiako mera edo auzapez izateko artea ediren zian (1871-1875). Egia erran, herri txipi bat zen, diala ehün urte, Hendaiako hiria. Baina txipi ala handi, ez zatekian denbora hartan ere alkat hon izatea haiñen aisa.

Ez zen sail hortan ere auher egon Abadia: zübürü eli bat egin zütian, karrikan argia ezari, herriko-etxea edo meria eraiki, plaja edo hondartza ere antolatü, adelatü...

Politikan, zoin alderditakoa zen? Esquintiarra zatekian, baina errabiarik ez hertsikeriarik gabe. Hain bat erregetiarra zela üdüri lüke, baina hortan ere ez da gogor agertü.

Napoleon hirugerrenaren adixkide zen. Honek Abadiako jauregian azken harria ezari behar zaion. Baina (hiruetan-hogei-ta-hamarrian) gerla galdürrik, Inperadoreak hantxen behera joan behar izan zian, Biarritzeko maiñhiak ützirik. Arren, harri bat ments (edo eskaz) baratü da geroztik Hendaiako Abadian...

Karlista familia eli batekin ere, harreman tinkak bazütian Antonik, bereziki Lardizabal eta Olazabal-tiarrekin.

Zer nahi gisaz, ez zen politikazale beroa. Astronomia eta eüskaldüngoaz zütian bere amorioak eta inganioak.

Bestalde, oso baketsia zen, hona eta ezta: ez zütian aharrak eta ixtoriak maite; haietarik hürüntzen zen ahal bezain beste.

Koblakarien zoin-haboroketan, politikarik ez zian nahi: hiruetan-hogei-ta-hamaseian, deus ere gabetarik egon zen, nahiz lehen prima merexi zükian, Zadubi-Adema-ren kantore bat, "Biba Errepublikak" delakoa: Errepublikaz trüfatzen zelakoz, baztertü zien. Areta, ez zen hüñanik ere gorrietarik Antoni ABADIA!

II

NOR ALDIZ AGOSTI XAHO

Oso bestelakoa, besteak ez bezalakoa eta liferenta zen Agosti XAHO. Urte batez Abadia baino gazteago, Atarratzeko trinketian sortü zen. Hiru anaie ta bi arreba zütian. Aita,

herri hortako hüxera zian. Mauleko zian aldiz ama, Lagarède anderea, Agostina de Mirande baten alaba. Gehiena zen Agosti.

Denbora batez amañiarekin Maulen bizi izan zen, haurrian, **OIHENART** izkiribaño famatiaren etxen. Ikasle haitia izan zen Oloroeko seminario txipian. Baxotik landa, Parisera joan zen, Dretaren egiteko xedetan. Hortarako, bere etxe partea hartü zian. Amak abantallatürrik, 12 mila libera hunki zütian, buxinkaka. Abadiaren arreba batek seroratzean üken baitzütian hiru miliu, horietarik hürrün gira...

Halere, sos horri esker, gaiñ-gaiñetik eskolatu ahal izan zen Agosti. Denbora librütegieta igaraiten zian, satorra bezala librü musurkan, errabiatürrik. Ez zian besterik egiten. Jatean ere irakurtzen ari zen: egia erran, aitaren ganik zian kostüma hori.

Salbü, Charles NODIER izkiribañoaren ezagützea eginik, Dreta bazter ützi zian, eta literatürari lotü zen. Erromantikoen bürietarik baitzen Charles Nodier horrekin oso erromantiko egin zen Xaho: dena sü eta ke, odei eta txilimista, iñazi eta lano, ebi eta dündä, zohardi eta ülünpe,... Orotarik nahas-mahas, eta zombait aldiz axeriaren ezteiak!

Ber denboran, bere frantsesa fiagotü zian, eta ekialdeko mintzaje zombait ikertü (hala nola, Sanskrita eta Indietako beste hizkuntza eli bat).

Ekialdeko erreligioner interesatü zen halaber, eta erreligionetaz librü harrigarriak izkiribatü zütian.

Hogei-ta-hamalauan, Bizkaijala joaiten da. Gerla da han, bi erre-gaiek piztürrik: Karliten gerla. Alderdi bata, Liberalenak, Euskal-Herriko Autonomiak edo Foruak elki nahi dütü. Besteak aldiz, Don Carlos-enak, horien etxekitzea hitzemaiten dü. Arren, don Carlos-en alde jeikitzen dira Eüskaldunak; beren amorea gatik, karlista egiten dira. Areta, ideiaz oso zahar gisa, gibeloi eta gibelkari da Don Carlos: baina beren Autonomiak edo Foruak begiratü nahi batütie, beste haitürrik ez die Eüskaldünek.

Liberala da Xaho, ordüko ixkertiarretarik da. Har gatik, ikusirik beste alderditik dela Eüskaldünen libertatea, Karlista horien alde hartzen dü. Gisa hortan dü izkiribatzen "Paroles d'un Bizcayen aux libéraux de la Reine Christine" delako libria (palabras de un Vizcaino a los Liberales de la Reina

Cristina): Kristina erregiñaren liberaler, Bizkaitar baten hitzak (1834).

Ondoko urtean, Nafarroan ixilka sartzen da, han gainti baitabila Eüskaldünen aitzindaria, **ZUMALAKARREGI** jeneral handia. Don Carlos-ek jakiten dialarik, Xaho hantik ohiltzen dü bertan. Utzüli ordüko, bere historia izkiribatzen dü Agostik: Hori da "Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques". J. A. **XAHO** de **NAVARRÉ** sinatzen (edo izenpetzen) dü.

Hor ere, abertzale oso agertzen da Xaho. Karlisten aldea etxekitzen dü berriz. Eüskal-Herriko zazpi probintziak beren gain, eta algarrekin esküz-eskü, nahi dütü.

Bi gaiza harrigarri erraiten daizkü: bata, Gernika etsaiek deseginen diela, Eüskaldünen hiri saintia delakoz, (eta hori badakigü ehun ürteren bürian agitü dela); bestea, libertaterik ez dela Españan izanen, Eüskaldünak hanko irailtzaren bürü sartzen ez direno (eta hau orai, gure begien bistan agitzen ari dena).

Harrigarriena, behar bada, Antoni Abadiak egiten daion batzarria edo honki jina: "Voyage en Navarre" libriaren bildüma bat hontzen daio, "Bulletin de la Société de Géographie" delakoan. Xaho-ren süsko izkiribia eta gaitzeko abertzalegoa (edo herrizalegoa) laidatzen eta goraiatzen dütü azkarri Abadiak.

Berrogei-ta-lauan, **ARIEL** kazeta jelkitzen dü Xaho-k. Hortik zortzi urtez ariko da literatüran eta politikan.

Mutiko mehats, lüxe bat da, beti xinpleki bezain ontsa bezi, eleganta, eijerki mintzo, maitagarria, baina ber denboran ezinago minbera eta gaitzikor. Norbaitek txixtatzen dialarik, izigarri fiki, zorrozki eta bortizki bere kazetan ihardesten daio. Holaz aisa dü etsai zombait egiten.

Haren artikülü bat norbaiti ez gustatürrik, espata eskian esplikatü ziren Xaho eta bestea. Etsaia mihian txixtatü nahi izan zian Xaho-k, baina besteak artetik saihets ezür batetan zauritü zian.

Lespès izeneko bat zian bere inprimazalea. Oso adixkide-tü ziren, eta Lespès-en familian bizi izan zen, hil artino, Agosti. Hor beti lagüngoia ederrena üken zian. Ez zen ezkontü ere.

Ordaiez, horko seme bati eskola egin zaion. Jüje izatera heltü zen Lespès gaztea, eta diala berrogei-ta-lau urte Baionan hil da. Oso zahartürik ezagütu dü Aita Lafitte-k eta balüke hortaz zer erran.

Berrogei-ta-zazpian, Eüskaldünen historia bat hasten dü Xaho-k, Beltzuntzeko jaun batekin esküz-eskü. Oso erregetiarran zen jaun hori.

* * *

Ondoko urtean, irailtza da Parisen, eta bigerren Errepublikan nausitzen da han. Baionan aldiz, zelütik zer eroriko zaien haidürü dira, ordükoz. Baina ez dira güziak lo. Errepublikaren aldeko minoria txipi bat bada. Horren бүрү, pentsa nor den: gure Xaho debria!

Zeren, oro errerepublikaren alde biltzen dütü: lehenik popülia, gero armada eta jaunak, azkenekoz eliza.

Harispe jeneralari "Gora Errepublikan" oihu eginarazten daio, eta apezküpiari kantarazten "Domine, salvam fac Rem Publicam", Jauna salba zazü errerepublikan! Oro botzik dira, baina ez Xaho. Ezi laster ohartzen da ez dela deus ere kanbiatürik, erresumako nausiak baizik. Eta oposizionean sartzen da arrunt.

Garda nazionaleko aitzindari ezarten die Baionesek. Herriko kontseilian sartzen da, bai eta Paueko kontseilü jeneralean. Han eüskaldün laborari eta artzaiñen dretak, züzenak eta eskübideak zaintzen dütu arrahainki. Urte haietan, errebolta edo jazarkünte bat bezala izan zen, ipar aldeko Eüskal-Herri hontan. Ehünka bildu zen jentea, eta borroka gogorrak izan ziren, bereziki Atarratzen, Oztibarren, Amiküzen eta Mehainen.

Herri lürretako oihanetan kabalen alhareztea eta olhetako (etxoletako) behar ziren zur eta egürraren hartzea debekaturik zian Napoleon lehenak. Baina, Errepublikan nausitü zenaz geroz, lege zaharra bere osoan berriz nahi zien, Xibero-tar eta Basa-nabartarrek.

Xede horren alde mintzatü zen Xaho, Haritschelhar jaunak Etxahun Barkoxez egin dian librian erakusten daikün bezala. Kontseilü jenerala Pariseri legearen xüxentze baten galtatzera akülatü zian, eta hola eginik izan zen.

Berrogei-ta-zortzian, depütatügoala presentatü zen Xaho, baina ez zian irabazi. Ondoko urtean berriz erauntsi zian. Bozkan ari zelarik, karrosa arroilalat eraili zaion eta bera mankatü zen. Bere etsai batek, Beaumont kunteak, eraiki zian, eta egün zonbaitez bere etxen artatü ere. Baina Xaho hil zelako fama kurritü zen. Hogei-ta-hamar mila botz bildü zütian halere, eta igaitea zonbaitez hüts egin!

Berrogei-ta-hamabian, beste ahaiderik entzünen dü Xaho gaizoak. Ariel kazeta debetazen daio Napoleon-ek, eta gure Xiberotar kartsia erresumatik ohiltzen dü. Urte batez Gazteizen (Vitorian) biziko da Xaho. Aita eritürrik, haren gana ützültzea eskatü zian, eta ardietsi ere. Hura hil zaiolarik, Baionan kokatü zen berriz.

“Règles de l’orthographe euskarienne” delako bat izkiribatü zian. Eüskal hiztegi bat hasi zian, bai eta eüskaldün kantoreen librü bat. Etxahun Barkoxe ihon ere ez du aipatzen. Areta, depütatügoalako bigerren bozketan, Xaho-ren alde kantore bat hontü zian Etxahun-ek, bai eta Xaho-ri Lespès inprimagian inprimarazi, Haritschelhar jaunak erran delako librian ekarten dian bezala. Hots, algar ezagützen zien Etxahun-ek eta Xaho-k.

Haboro dena, Xaho-ren bi anaiek Etxahun-etaz egin zien librüxka bat bada nonbait, eta ez hürrün: Pierre de Souhy jaunak dü orai horren eskütitza. Arren, Etxahun zertako ez dü aipatzen Agosti-k? Bera jauna zelakotz ote? Baina badakigü jente xeheen aldekoa zela errotik, ez hitzez bera, baina obraz ere bai.

Bestalde, oso jaun txipia higtü zen gaizo Xaho: ahal bezala bizi zen bere kazetatik, librietarik eta baten-besteentxen eskola egitetik, üsu ja zorren pean itorik.

Etxahun-en ganako ixiltarzünak arrazua hau düke, balinba: bozkan ari zela Xaho. Eta nahiz oro sü zen, eta marroa bezala xüxen koskatzen, zonbait aldiz phürü bazakian gaizen üngürütik hartzen: berrogei-ta-zortziko irailtzan, zoin habilki jokatü zen, badakigü.

Eta beste behin “L’Eclaireur des Pyrénées” izeneko kaze-taren ahürka üken zian ez-da-bada bizi eta bortitz batetan, hau erran zian: segürki, Frantziaren batarzüna ez ziala ür-ratü nahi, eta federalisma mügaz haintiarentako ützen ziala.

Aldiz, Zazpiak-Bat nahi ziala badakigü. Zaina berrogei-ta-bederatzüko bozken mezperan zen, ez-da-bada hori.

Ber gisan, ez dügü ahatze behar, jente hanitxen begietan, gaizki egile bat zela Etxahun. Hon baino hobe ote zen, politikari batentako, horrekin nahasirik bezala agertzea? Ez zait üdüri.

Misterio horren beste argi-bide bat, hau date behar bada: Xaho-ren püritanisma. Zeren apez kartsü bat bezala bizi izan da, emazteen eretzeko bezala, beste sail orotan.

* * *

Berrogei-ta-hamazortzian hil zen, berrogei-ta-zazpi urtetan, Baionan. Hanko ilherrietan ehortzirik da, harrizko itxüra baten pean. Elizan igaran gabe ehortzi zien: Eüskal-Herrian, gisa hortako lehen ehortzeta izan zen hori, Eüskaldun batentako ja, üdüri dianaz.

Geroztik, Jainkoan sinesterik ez zialako fama oso nausitürik dügü. Berriki agertü den librü batetan ere, hontan gira. Arren, Xaho-ren izkiribü eli bat hortaz ikertü behar izan dü-tüt, eta düda gabetarik erraiten ahal daiziet: Jinkoan sinesten ziala Xaho-k. Filosofoen Jinkoa da horrena, Voltaire eta Rousseau bezalakoen Jinkoa, eta ez Jesu-Krist. Gizon handi bate-tako ützen dü hau, besterik gabe.

Har gatik, filosofa horietarik berezten da Xaho, erranez gizonen librazale direla, Jinko baktx batetan sinesten dien errelijioneak. Salbü, bere denborako apezak, kontserbadore zaitzon bezala, bortizki jorratzen dütü. Zientzian edo jakintzan konplitüko da hark nahi dian errelijione orokorra, oekümenikoa...

Halere, eüskararen alde lan egin dü apez eli batekin, eta bereziki Inchauspe kalonjearekin adixkide bezala zen.

* * *

III

ABADIA ETA XAHO: BI ABERTZALE

Hots, oso desbardinak dira Xaho eta Abadia: bai sortzez, bai jitez, bai bizipidez, bai sinestez, bai ideiaz. Arren, algarrekin zerbaiten egitera, zerk lehiatü zütian?

Alde batetik, gazte ziren, biak adinak. Bestetik, biak xibrotar hüme ziren, eta eüskaldüngoia oroz gaiñetik maite zien. Hots, eüskalzaleak ziren errotik eta, egia osoa aitor dezagün, abertzaleak ziren, herrizaleak, hots "Zazpiak-Bat" horren aldekoak.

"Voyage en Navarre" libriaz Abadia-k egin zian aipamena ikusi dügü. Ondoko urtean, hogeita-hamaseian, "Études Grammaticales sur la langue basque" libria algarrekin agertü zien biek. "Zazpi Uskal Herrietako Uskaldüner" eskentürrik da. Sartzeko hitza, Abadiak sinatzen du, A. Th. D'Abbadie de Navarre izenpetürrik. Ezi, Nafarroako erresuman da Eüskal-Herriaren büria, han gure bihotza, aspaldiko mentetan.

Bai, Eüskal-Herriaren amorioan bildü dira Xaho eta Abadia. Areta, ber amorioa balin badie, eüskaldüngoia ez die berdin ikusten batak eta besteak.

Jauna zen Abadia, nahiz xehea, eta ber denboran kanpañakoa. Kiristia zen, apeztiarra zen, xuria zen: eüskararen salbatzeko, apezzen gain kuntatzen zian (1). Bestalde galanta zen, aharren etsai. Azkenekotz, politikan ez zen hanbat agertzen.

Zerbaitetako zien "Eüskaldüngoaren Aita" deitü. Eta geroztik ere, ontsa merexitu dü. Ezi orai artinoko eüskaldüngoaren Aita izan da, ipar alde hontan phürü: Eüskaldüfededünen" Aita, kältürzale hütšen Aita, Koblakari zoinhaboroken Aita. Hots hego-aldean "apolitica de derecha" deit liroiien eüskaldüngoia baten Aita. Baina hori gabe, non zatekian orai ipar aldeko eüskaldüngoia?

(1) Areta, apez eüskalzalekin esküz-eskü lanian eraunsi balin bazian Abadiak, Elizaren büruzagiekin ez zen hain ontsa jelki. Seminario handian bere diharüz eüskararen irakasteko alki baten eraikitzea eskaintü baitzian, eskübide hori ükatü zaien diosesako aitzindariak.

Gobernükö eskoletan bezala, Baionako seminario handian eta Larresoroko seminario txipian debekatürrik zen Eüskara.

Aldiz oraiko euskaldüngoaren profeta dügü Xaho: Enbata-ren eta Ehas-en aitzinekoa, beste zonbait alderdi aipatü gabe. Hiritarra zen, gorria zen, politikazalea zen, borrokaria zen: Abertzale politika sozialistaren piper gorria euskaldungoan sartu daikü. Eta piper gorritz azkar agertzen zaikü oraiko euskaldün gazteria, ipar alde hontan ere.

Bai, gatza bezain fi eta sükrea bezain gozo bazen Abadia, piper gorria dügü Xaho. Baina saldak, hon izateko, ez dü behar ez gatxotx, ez hil. Gatza eta piperra biak behar dütü aski azkar...

Ez ote dü Abadia eta Xaho-ren beharra, bi-bien beharra, Eüskal-Herriak?

Nahiz nihau, politikan Xaho-tiarra nizan, eta piperrada hain bat mingar maite düdan, Xiberotar hanitxek bezala, uste düt, bai, zerbait ekarri eta ekarten daiküla Abadiak ere: nik ja ez düt ükatüko. Haren errelijionea phürü, Xaho-rena baino nahiago düt...

Biak ez balira izan, ni beldür heben, egün, gure ait-etamen eüskara plaiñian gozatzeko partez (edo ordez), frant-ses gaixto batetan tarrapataz ari behar günükiala, txipi eta handi hanitx, üsü ari diren bezala.

Arren, Abadiak oihüstatzen zian bezala: "Zazpiak bat"! Xaho-k kantatzen zian bezala: "Jeiki, jeiki etxenkoak!" Eta Santa Grazin dioien bezala: büria altxaten badügü, bizirenko da Eüskal-Herria, Allah Goihena!!!

* * *

P. LARZABALEN ERANTZUNA

Maule — 1976-VIII-22

P. Larzabal

Jaun Andereak,

Adiskide batek erran daut: "Gogoan har zazu Euskaltzaindirako mintzaldi batek ez duela izan behar lurarrasakoa, gordin edo larri, baina goratasunetan hegaldakari, udaberriz loratua, hitz orratztatuz apaindua".

Mintzaldi nekea beraz neretzat, Jean Louis DAVANT bezala, nik ere, baserritarra izanez, aize jorran baino hobeki ikasi bainuen lur jorran.

Lanoetako itzuli-mitzuliak ez dira gurekoiak. Bat ala berztea errexkiago mintza gintazke euskal alorretan aurkitzen diren lurpeko, sator eta mamutza gure etsaiez. Baina jendetasuna ere pixka bat ikasi nuen. Ez nuke nehor hemen atxiki nahi burua behera, lurrari so. Hortakotz, lur azala utzirik, mintzatuko nitzautzue, pottoken gainetik, abere horien goratasuna baita nere heinekua. Eta ere, ba Jean Louis-ek eta ba nik, biziki maite baititugu gure aspaldiko pottoka horiek.

* * *

Noiz sortu ote zitzaion Jean Louis-i gure pottoka horien alderako kezka eta bihotzmina?

Duela berrogoi-ta bat urte mundurat jin zen Larrabile Zabalaian, laborari familia euskaldun batean.

Segur, bera ohart gabean, ttipititik maitatu zuen bere ingurumen herrikoa. Ezagutu zituen izanez eta izenez bere etxeko eta auzoetako jende eta kabalak... Lur oneko ezkurak, haitz ederraren mentura.

Bere herriko eskola utzi zuen hamabi urtetan, Mauleko ikastetxean sartzeko sei urtentzat. Hor erakasle zen Pierre CHARRITON jaunak, zirrito batzu ideki ziozkan euskara eta euskaldungoari buruz. Bainan eskoletako zer-egin ofiziala halakoa zelakotz, ez zirritoak bainan ate-lehioak ziozkatzen ideki arrotz jakin-gaieri.

Hola ikasi zuen bere arbasoak zirela Galiatarrak, orai Frantsesak deituak. Frantzia zela bere aberria, aberri haundia, sakratua, betierekoa, Afrika eta Azia gaindi zabaldua. Aberri horri zor ziola bere atxikimendua, bai-eta, hala beharrez, bere odola ere.

Mauletik jo zuen Uztaritzeko ikastetxerat, urte batentzat, bigarren baxoa preparatzeko. Hor ezagutu eta bere baitan ospatu zituen bereziki Pierre LAFITTE eta Etienne SALLABERRY bi apez euskaltzale bipilak.

Hortik joan zen Angers'eko ikastegirat, handik ateratzeko laborari inginadore, hiru urten buruan.

Gorputzez etxetik urruntzeak, bihotzez etxeari hurbiltzen. Handik hobeki sentitu eta neurtu zituen Euskal-Herriaren ongaitzak. Sortu zitzaion herri-mina eta bere geroa Euskal-Herrian apailatzeko tirria. Ahatik ez zuen hunat itzuli nahi eskuak hutsik. Ikas eta ikert ari izan zen, hemen gaindiko lurgintza nola hobe zitaken zuela buruan. Hango betroin zaldi luzeak eta bulones alimalekoak zituen begitan, bainan gogoan... gure menditako pottokak.

Halako batez, bere ikastegiko liburutegian aurkitu zuen Philippe VEYRIN'en *Histoire des Basques* izenburutu liburua... Behin eta bietan irakurri zuen. Herri-pottoken ezagutzea eta maitatzea, ez ote da lotua Herriaren ezagutze eta maitatzeari?

Nork erran Jean Louis-en atsegina, Angers utzi eta jin zelarik Euskal-Herrirat, Garro laborantzako eskolarat, hor, urte batez osatzeko bere inginadore ikaskuntza?... "Euskaldun Gazteria" fedegintzako taldean sartu zen, laket baitzitzaion hortan sumatzen zuen euskaltzale aroa, abertzaletasunerat ari.

Adixkide baitzen, Mitikile Goihenetxean bizi zen, Arthe-guiet Domintxaineko erretor ohiarekin, hunek ezagutarazi ziozkan ABADIA URRUSTOR-koen norbaitasuna eta ere Matalazen kondaira gogorra. Apez xahar horrek usu erraiten zion: "Jean Louis, populu guziak behar dira maitatu, bainan gure lehen... Bertze edozoinak bezala, euskal populuak ere badu bere nortasuna, Jainkoak emana. Horri zor diogu ohore eta atxikimendu".

* * *

Horiek hola, Garro-ko urtea arras bururatu gabe, gure Jean Louis armadarat deitu zuten eta hogoi-ta-zazpi hilabententzat, Algeriarat igorri, "bakea egiterat" omen. Hori zioten orduko Frantziako propaganda iturriek.

Algerian, ikusiaz ikasi zuen nola eta nolako bakea kolonizatzaileak onhartarazten zuen kolonizatuari.

Hango menditan ere baziren pottokak, araba zamari ttipi mehar miressgarriak. Horien zaint zagon gizon zahar zimel batekin, ezagutzak egin zituen eta haren ganik entzun hameka egi: "Lur hau gurea da —zion zamaltzainak—. Hemen sartu zinezten eta zagozte indarraren bidez. Gure zamarien lur hoberenak zuenganatu ditutzue. Hetan ezarri zuen zaldia. Gure zamari gaixoak ereman ditutzue zuen gerla egiterat eta han hiltzerat. Hemen geldituak, dira bazka hobenetarik baztertuak, beren lurretan arrotz bilakatuak, arrotzez eta heien mint zairan heziak... Ez dakit zuk adoratzen duzun Kristok, onhartzen duen holakorik. Ni, gure Allah-ren izenean, ez nitake jazar baizik zure jokabideari".

Girixtino zintzoa izanez, hitz horiek min egiten zioten Jean-Louis-i... Kezka sortzen ere bere baitan: "Bai, zerentzat eta norentzat gerla hau?". Maiz, gogorat heldu zaizkion ere ARTHEGUIET apez xaharraren erranak, populu bakotxari behar zitzaiola berea eman.

* * *

Algeriatik gutarterat itzuli zelarik, mila bederatzi ehun-ta-hiruogoiko abenduan, Jean Louis ez zen gehiago lehengo hura. Han ereman bizitzak, harra sartu zion, ordu arte bera zen fruitu gaztean.

Oso gogoetaturik zagon, Algeriako zamaltzainaren erranez... Han bezala, hemen ere, gure menditako pottokak, gure lurrak, gure bizimolde guzia ez ote ziren arrotzen pean eta arrotz bilakatzen ari? Utzi behar ote zen euskaldungoa betikotz suntzitzerat? Ez ote zen hori mito bat, ametskeria bat baizik, lekuko jende argitu batzuek hanpatzen zutena eta gaurko gure buruzagiek laguntzen, udatiarren ahusagailu eta berentzat diru-emangailu?

Orduan, Jean Louis lotu zen, bere zintzotasun guziarekin, euskara eta euskal kondaira mamitzen, ikertzen, barnatzen.

Bere jakintza aberatsago-eta bere harritzea, bai eta ere bere aseresamurgoa, emendatuz joan ziren... Nolaz ba, bere eskoletan, milaka argitasun eman ziozkaten mundu zabaleko edozoin populuz, edozoin gizon aipatuz, ixiltasun osoa beiratzuz (edo kasik!) euskal populuaren kondairaz eta euskaldun gizon famatuez?

Orai —eta berez-bere— behar zuen ikasi Euskaldunak, mendez-mende gudukan ari izan direla beren buruen jabetasuna beiratzeko edo berritz berentzeko... Euskal mintzairaren lehengotasuna eta aberatstasuna... Gure literaturaren zerizana eta gaur daukan bizitasuna. Euskal pinturatzaile, musikari, eskultore, arkiteto, industriari, gerlari eta zernahilari famatuen sail harrigarria.

Erlijione ereintzan, Aita VITORIA, San FRANTSES XABIER, IÑAKI LOYOLAKO eta bertze hainbertzeen izerdi eta lanak.

Nork dakizki gutartean Amerika Hegoan, Euskaldunek erabili urrats eta borrokak?... Nork, eskualde hortako nazio-netan izan direla larogoi president, gure odolekoak? Nork, ELKANO, LEGAZPI eta hainbertze gure itsasturien balentriak?

Gure haurreri, gizon ospetsu bezala aipatzen diozkate eskoletan, Charlemagne eta Louis hamalaugarrena, salatu gabe ere biek Euskal-Herrian egin zituzten mandilkeriak eta odol-ixurtzeak.

Holako mila jakingailu, Euskaldunek behar liuzketenak ikasi haurretik eta xortaka, Jean-Louis-ek beretu zituen adindurik eta uhainka.

Hortarik gizon-berritu zen. Argi eta garbi ikusi zuen zer bide har geroari buruz: Girixtino bezala, izan behar zuela gizon eta gizon guzien gizona. Euskaldun seme bezala, euskaldungoaren zerbitzari, hortakotz hautatuz berari egokienak idurituko zitzaizkon jokabideak.

* * *

Gaurko egunean, zail da bakarka lan onik egitea... Laguntza eske jin zitzaitan Jean Louis eta gogotik eskaini nion nere benedizioea eta zerbait gehixago ere. Holaxet, zazpi elkartu gienen ENBATA'ren inguruan. Haize zirimola horren izen-pean lotu ginen abertzale lanari, nahi baigintuen inharrosi gure lurra iresten ari diren zuhaitz itzaldun batzu, salatu eta ahalaz sendatu heien antzukeria, hek ordaindu landare gazte emankorrez.

Orduz geroz, gure pottoken irrintzina ozendu zen gure mendietan.

Gure gogo-xedeen zabaltzeko, padara on bat ukan ginuen, euskaraz mintzatzeko baimena lehen aldikotz ardietsiz, Biarritzen ezarri zuten udako radiotegetik.

Garai hartan, Jean Louis-ek, asko lan euskaraz atera zituen, bai ENBATA kazetaz, bai irratiaren bidez. Idazten ere zuen *Herrin* astekarian eta *Branka* aldizkarian.

Bere buru-lan gaiak zituen ardurenik. Politika, laborantza eta kultura. Gai berez, hainitz idazten zuen frantsesez ere.

Hazparneko laborantza ikastegian baitzen zuzendari eta erakasle, bere ikasleeri erakasten zioten euskara eta heien izpirituak idekitzen euskal kulturari.

Ordukoa eta oraindik inprimatzekoa badauka, "NEKAZARI" izenburutu liburu bat.

Noizbait ezkondu zen ere. Orai bi haur baditu.

Bere emaztearekin, fedegintzari jarraikia, bere leloa du euskal Elizak behar lukeala euskaldunagotu eta bateratu.

* * *

Horiek hola, Enbatakoek higitu saltsak, mugitu zituen ulitxak.

Hastapenean, gure ikusbideak, irriz hartuak ziren: "Ha-haha, zer xorakeriak!". Geroxeago, umore txarrez: "Xorakeria bazter nahasleak!". Azkenekotz, sudur xistuz: "Aski xorakeria!!".

Entzuten gintuen gureak eta asto beltxarenak. Gu beti gureari.

Noizbait, gora maileko buruzagi errespetagarriak erabaki zuten gutartean beren errespetua sartzea, onez ez baziteken, indarrez.

Mila bederatzi ehun eta hiruogoi-ta-hamabiko Otsailaren hogoi-ta-hiruan, ENBATAk muntatu zuen Baionako karriketant pottoka lasterkada bat, mugaz bertzaldetik hunarat ihesi etorrien alde. Horrarat etorri ziren ere, gurekoiek ez ziren asko zaldiki. Abere horien artean gertatu ziren uztar eta putarrak. Mandozain bat altxatu zuten Baionako ospitalerat. Saihets hezur bat omen zuen arraildua, DAVANT-ek ukaldi bat emanik.

Gertakari horren kariarat, tobera bat muntatu zuten Baionako auzitegian. DAVANT zen akusatua eta mandozaina akusatzalea. Bakotzak zuen pertsulari bat, abokatatzat... Zernahi entzule...

Mandozainaren pertsulariak kantatu zuen: "DAVANT-ek mandozain huni, ukaldi batez saihets hezurra arraildu dio"... DAVANT'enak errefera: "DAVANT'ek ukaldirik ez dio eman. Ez da lan hortan zikindu".

Auzitegiko jaun president lehenak, irriz zagon jendea ixilarazirik, DAVANT-i gatzigua eman zion: "Hiru hilabeten presondegia "zurziarekin", eta amanda gotor bat.

Egia erran, auzitik auzirat, DAVANT-i ahuldu zioten akusamendua eta azkenekotz, duela doi-doia zonbait egun, kendu amanda ere. Betikotz ote?

Bertzalde, hemen gaindiko demokrazia ospetsuaren erabakiz, ENBATA debekatua izan zen. Talde bezala, beti debekaturik dago. Urte baten buruan, ENBATA astekaria berrituz piztu zen. Beti bizirik uzten dute. Noiz artio ote?

Gertatuak gertatu, DAVANT-ek, Enbatatiar lagun zonbaitekin, sortu zuen talde berri bat EHAS (Euskal-Herriko aberzale sozializtak), *Euskaldunak* izenburutu bere hilabeteka-

riarekin. Hortan idazten du gaur eta ere, horren osagailu den *Zabal* aldizkarian.

Liburu bat ere ba dauka, euskaraz berrikitan idatzia eta oraino inprimatu gabea izenburu duela: "ABERRI BURRUKA ETA KLASA BURRUKA EUSKAL MUGIMENDUAN".

Hirugarren liburu baten gaia ere baluke prest, hau ere euskaraz... Bainan betiko deabrukeria!... Dirua du eskas horien agertarazteko!

Beraz euskal idazle lantsua dugu gure DAVANT, eta, nik segurik, atsegin dut horren irakurtzea. Beti mamitsua, berdin errexki idazten du xuberotarrez, lapurdi-benabarrez edo euskara batuan. Bere hitzkera derabil erdi bide batetik, garbikeriarat erori gabe, zaharkeriak oraikotuz, hala beharrean erdara euskaratuz, bainan ez euskara erdalkeriaz saltsatuz.

Bururatzeko, nahi dautzuet salatu zer-nolakoa izan den DAVANT'en azken borrokada. Zabaldur zelarik berria, naski Euskaltzaindian sartuko zela, Guillaume EPPHERRE Xuberotar zenaren ordain, oilo kolokak asalatu ziren, mirua balitz bezala xito tarterat jausten. Ez ote ditu DAVANT-ek bero lerro-zerrendak tinta gorritz idazten? Ez ote da esku-eskerraz zeinatzen? Holakorik ez, Euskaltzaindikiko saindutegian! Fuera Galtzagorri!

Ororen buru, Euskaltzainek, bozkutzen bidez, pottoka hau gure korralerat sartu ginuen.

Eta orain, nere semeetxi maitea, ausartatzen naiz zuri kontseilu bat ematerat: "Gu giren mando zaharren artean, zu egon beti pottok! Behar den aldi guzietz, gure mando-lotik iratzartzen gaitutzula! Beti beharria xut, nola eta zer bidez lagut ditzazkegun, kanpotik guri beha daudenak. Gure Euskaltzaindia ez dadiela sekulan bilaka, hor barnean girenen ohorategi bat, bainan beti izan dadiela lantegi bat euskal populuaren zerbitzari... Segur naiz hori bera dela ere zure gogo eta xedea... Beraz, aurrerat, lagun!"